




Interprete Greziarra

ARTHUR CONAN DOYLE

Itzulpena :
Maddi García Landaburu
Sara Álvarez Gallego
Ainhoa Defois Cancio



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

ARTHUR CONAN DOYLE

Interprete Greziarra

Itzulpena:

Maddi García Landaburu
Sara Álvarez Gallego
Ainhoa Defois Cancio

Sherlock Holmes jaunarekin izan nuen adiskidetasun luze eta intimoan, ez nuen sekula haren harremanez eta familiaz hitz egiten entzun, eta ia inoiz bere bizitza goiztiarraz. Bere mesfidantza horrek areagotu egin zuen nigan sortzen zuen efektu anker samarra, halako punturaino non batzuetan fenomeno isolatutzat hartzen bainuen, bihotzik gabeko garuna, giza errukitasunean bezain eskasa nola adimenean nagusi. Emakumeei zien gorrotoa eta lagun berriak sortzeari uko egitea ohikoak ziren bere izaera ez emozionalean, baina ez bere herriarekiko erreferentziak erabat ezabatzea bezain ohikoa. Ahaide bizirik gabeko umezurtz bat zela uste izan nuen, baina egun batean, nire harridurarako, haren anaiaz hitz egiten hasi zitzaidan.

Udako arratsalde batean izan zen, tea hartu ondoren. Elkarrizketa modu irregular eta esporadikoan ibili zen golf-klubetatik ekliptikaren zehar hartasunean izandako aldaketaren arrazoiataraino, eta azkenean, atabismoaren eta herentziazko jarrenen auzira iritsi zen. Eztabaida-puntua hauxe zen: gizabanako baten dohain jakin bat zein neurritan zor zaion herentziari eta zein neurritan haren heziketa goiztiarrari.

— Zure kasuan — esan nion —, kontatu didazun guztiagatik, argi dago zure behatzeko ahalmena eta dedukziorako erraztasun berezia zure prestakuntza sistematikoaren ondorio direla.

— Neurri bateraino — erantzun zuen, pentsakor —. Nire arbasoak lurjabeak ziren, eta badirudi beren klaseari dagokion bizimodu bera eraman zutela. Baina, hala eta guztiz ere, bide horretarako joera zainetan daramat, eta agian nire amonarena izango da, Vernet artista frantsesaren arreba izan zena. Odoleko arteak formarik arraroenak har ditzake.

— Baina nola dakizu herentziazkoa dela?

— Nire anaia Mycroft-ek baduelako nik baino maila handiagoan.

Hori bai berria zela niretzat. Ingalaterran hain botere bereziak zituen beste gizonik baldin bazegoen, nolatan ez poliziak ez publikoak ez zuten haren berri izan? Galdera egin nuen, iradokiz nire lagunaren apaltasunak bultzatu zuela bere anaia hobe zela aitortzera. Holmesek barre egin zuen nire iradokizunaz.

— Ene Watson maitea — esan zuen —, ezin dut bat egin apaltasuna bertuteen artean sailkatzen dutenekin. Logikariarentzat gauza guztiak diren bezalaxe ikusi behar dira, eta nork bere burua gutxiestea egia irtetea da, bere botereak puztea bezainbat. Beraz, Mycroftek nik baino behaketa-dohain hobeak dituela esaten dudanean, ziurtzat jo dezakezu egia zehatza eta literala esaten ari naizela.

— Zure adingabea al da?

— Ni baino zazpi urte zaharragoa.

— Zergatik da bera ezezaguna?

— Oso ezaguna da bere inguruan bertan.

— Non, orduan?

— Beno, Diogenes Klubean, adibidez.

Inoiz ez nuen erakunde horren berri izan, eta nire aurpegiak hori aldarrikatuko zuen, Sherlock Holmesek bere erlojua atera baitzuen.

— Diogenes Kluba Londreseko klubik arraroena da, eta Mycroft gizonik arraroenetako bat. Beti egoten da han bostak laurden gutxietatik, hogeiak eta zortziak arte. Seiak dira jada, eta gau eder honetan paseatzera joan nahi baduzu, oso pozik aurkeztuko dizkizut bi bitxikeria.

Bost minutu geroago kalean geunden, Regent' s Circus aldera oinez joaten.

— Zeure buruari galdetuko diozu — esan zuen nire lankideak —, zergatik ez dituen Mycroftek bere botereak erabiltzen detektibe-lanerako. Ez da gai.

— Baina pentsatu dut esan duzula...

— Esan dut bera ni baino hobea dela behaketan eta dedukzioan. Detektibearen artea besaulki batetik hasi eta arrazoitzen amaituko balitz, nire anaia inoiz izan den agente kriminalik handiena izango litzateke. Baina ez du ez anbiziorik ez energiarik. Bere irtenbidea egiaztatzeko ere ez da ahaleginduko, eta nahiago luke okertzat joko balute, arrazoi zuela frogatzeko nekea hartu baino. Behin eta berriz arazo bat planteatu diot, eta geroago zuzena izan den azalpen bat jaso dut. Eta, hala ere, ez zen gai kasu bat epaile edo epaimahai baten aurrean aurkeztu baino lehen aztertu beharreko puntu praktikoak egiteko.

— Ez da bere lanbidea, orduan?

— Inola ere ez. Niretzat bizibidea dena, diletante baten denbora-pasa hutsa da harentzat. Zifrak egiteko ahalmen handia du, eta gobernuko sail batzuetako kontabilitate-liburuak ikuskatzen ditu. Mycroft Pall Mallen dago ostatz, eta Whitehalleko kantoari buelta ematen dio goizero, eta gauero itzultzen da. Urte bukaeratik aurrera ez du beste

ariketarik egiten, eta ez da beste inon ikusten, Diogenes Klubean izan ezik, bere ganberaren aurrean baitago.

— Ez dut horrelako izenik gogoratzten.

— Litekeena da ezetz. Gizon asko daude Londresen, badakizu, beren hurkoen konpainiarik nahi ez dutenak, batzuek lotsagatik, beste batzuek misantropiagatik. Hala ere, aulki erosoek eta aldizkako azken argitalpenek ez dituzte nazkatzen. Haien erosotasunerako hasi zen Diogenes Kluba, eta orain hiriko gizonik tratagaitzenak eta antiklubistenak biltzen ditu. Inork ezin du beste inor aintzat hartu. Arrotzen Gelan izan ezik, ez da hitz egiten; eta hiru arau-haustek, komiteari jakinaraziz gero, hizlaria kanporatzeko gai izatea eragiten dute. Nire anaia izan zen sortzaileetako bat, eta nik neuk ere oso giro lasaigarria aurkitzen dut.

Pall Mallera iritsi ginen hizketan ari ginela, Saint James-en muturretik. Sherlock Holmes ate batean gelditu zen Carltonetik oso gertu, eta, hitzik ez esateko ohartaraziz, atalondorako bidea ireki zidan. Beirazko paneletan barrena gela handi eta luxuzko bat ikusi nuen, non gizon asko egunkariak irakurtzen ari ziren, bakoitza bere txoko txikian eserita. Holmesek Pall Mallera ematen zuen gela txiki batera pasarazi ninduen, eta gero, minutu batez utzi ondoren, lagun batekin itzuli zen, bere anaia besterik izan ez zitekeela jakinik.

Mycroft Holmes Sherlock baino askoz ere gizon handiagoa eta gizenagoa zen. Gorputza erabat sendoa zuen, baina haren aurpegiak, mardula izan arren, bazuen halako adierazpen-zorroztazun bat, anaiarenean hain nabarmena zena. Haren begiek, bereziki gris argi eta urtsuak, baziruditen gordetzen zutela Sherlock bere ahalmen guztiaz baliatzen ari zenean bakarrik ikusitako begirada urrun eta introspektiboa.

— Pozten naiz zu ezagutzeaz, jauna — esan zuen, esku handi eta lodia zabalduz, foka baten hegala bezalakoa —. Sherlocki buruz hitz egiten entzun dut nonahi, bere kronista bihurtu zinenetik. Bide batez, Sherlock, joan den astean zu hemen ikustea espero nuen, Manor etxearen kasuari buruz galdetzeko. Pentsatu nuen pixka bat galduta sentitu zintezkeela.

— Ez, irtenbidea aurkitu nuen — esan zuen nire lagunak, irribarretsu —. Adams izan zen, noski.

— Bai, Adams izan zen.

— Hasieratik ziur nengoen horretaz. — biak elkarrekin eseri ziren klubeko leihoaren ondoan — Gizateria aztertu nahi duen edonorentzat, hauxe da lekua — esan zuen

Mycroftek — Begira nolako tipo bikainak! Begiratu guregana datozen bi gizon horiei, adibidez.

— Billar-markatzailea eta bestea?

— Hain zuzen ere. Zer deritzozu besteaz?

Bi gizonak leiho aurrean gelditu ziren. Txalekoaren poltsikoan klarionezko marka batzuk ziren haietako batean ikusi nituen billarreko seinale bakarrik. Bestea oso tipo txiki beltzarana zen, kapela atzera botata eta beso azpian pakete batzuk zituela.

— Soldadu zahar bat, nik uste — esan zuen Sherlockek.

— Eta oso berriki alta emanda — esan zuen anaiak.

— Indian zerbitzatua, ikusten dut.

— Eta ofizialorde bat. — Artilleria Erreala, imajinatzen dut — esan zuen Sherlockek.

— Eta alarguna.

— Baina ume batekin.

— Umeak, ene mutil maitea, umeak.

— Tira — esan nuen barre egiten—, hau gehiegi da.

— Seguruenik — erantzun zuen Holmesek —, ez da zaila esatea itxura hori duen gizon bat, aginte-adierazpen hori eta eguzkiak txigortutako azal hori, soldadu soila baino gehiago dela, eta ez duela aspaldi alde egin Indiatik.

— Zerbitzua orain dela gutxi utzi zuen: oraindik bere munizio-botak, deitzen dieten bezala, jantzita edukitzeak erakusten du, — ohartarazi zuen Mycroftek.

— Ez zeukan zalditeriaren ibilera, hala ere, kapela alde batera eramaten zuen, bekokiaren alde horretako azalik argienak erakusten duen bezala. Bere pisuak zulatzaile izatea eragozten du. Artillerian dago.

— Gero, noski, bere doluak erakusten du oso maite duen norbait galdu duela. Erosketa bere kabuz egiteak bere emaztea dela iradokitzen du. Umeentzako gauzak erosten aritu da, ikusten den bezala. Badago txintxirrin bat, eta horrek erakusten du horietako bat oso

gaztea dela. Litekeena da emaztea erditzean hiltzea. Liburu ilustratu bat beso azpian edukitzeak adierazten du beste haur bat dagoela pentsatzeko.

Ulertzen hasi nintzen zer esan nahi zuen nire lagunak, esan zuenean bere anaiak bazituela berak baino are trebetasun zorrotzagoak. Begirada bat bota zidan eta irribarre egin zuen. Mycroftek karei kaxa baten tabako-hautsa hartu, eta zeta gorrizko musuzapi handi batez eskuilatu zituen jakaren bularraldeko ale barreiatuak.

— Bide batez, Sherlock — esan zuen —, gustuko dutun zerbait jaso dut, oso arazo berezia, nire ustez. Egia esan, ez nuen energiarik jarraitzeko, oso modu osatugabea izan ezik, baina espekulazio atsegin baterako oinarria eman zidan. Gertakizunak entzutea interesatzen bazaizu...

— Ene Mycroft maitea, izugarri gustatuko litzaidake.

Anaiak ohar bat zirriboratu zuen bere poltsikoko libretako orri batean, eta, txirrina joz, zerbitzariari eman zion.

— Melas jaunari eskatu diot beste aldera pasatzeko — esan zuen —. Goiko solairuan dago, eta haren ezagutza txiki bat daukat; horrek nigana etortzera eraman zuen bere harriduran. Melas jauna jatorri greziarrekoa da, ulertuta dudanez, eta hizkuntzalari bikaina. Bizimodua ateratzen du, neurri batean epaitegietako interprete gisa, eta, neurri batean, Northumberland Avenue-ko hotelak bisita ditzaketen ekialdeko aberatsen gidari gisa. Uste dut utziko diodala bere aparteko esperientzia bere erara kontatzen.

Minutu batzuk geroago, gizon txiki eta sendo bat elkartu zitzaigun, zeinaren aurpegi oliotsuak eta ileak, ikatza bezian beltza, bere hego-jatorria aldarrikatzen baitzuten, nahiz eta bere hizkera ingeles hezi batena izan. Sherlock Holmesen eskua estutu zuen gogo biziz, eta haren begi ilunek atseginez distiratu zuten espezialista bere istorioa entzuteko irrikaz zegoela ulertu zuenean.

— Ez dut uste poliziak sinesten didanik, hitz ematen dizut ez dudala egiten— esan zuen ahots mingarriagaz—. Inoiz entzun ez dutelako bakarrik pentsatzen dute hori ezinezkoa dela. Baina badakit ez naizela inoiz lasai egongo nire buruarekin, harik eta jakin arte zer gertatu zaion aurpegia esparatrapuz estalitako nire gizon gizajoari.

— Arreta handiz entzungo dizut — esan zuen Sherlockek.

— Gaur asteazken gaua da — esan zuen Melas jaunak —. Tira, orduan, astelehen gaua zen—duela bi egun baino ez, ulertzen?—hau guztia gertatu zenean. Interpretea naiz, agian nire bizilagunak esan dizun bezala. Hizkuntza guztiak—edo ia guztiak—

interpretatzen ditut, baina jaiotzez greziarra naizenez eta izen greziarra dudanez, hizkuntza jakin horrekin lotzen naute nagusiki. Urte askoan Greziako interprete nagusia izan naiz Londresen, eta nire izena oso ezaguna da hoteletan.

» Sarritan, arazoak dituzten atzerritarrek edo berandu datozen bidaiariak ordu arraroetan deitzen didate. Ez nintzen harritu, beraz, astelehen gauean Latimer jauna, oso dotore jantzitako gaztea, nire ganberara hurbildu eta atean zain zegoen alokairu-kotxe batean laguntzeko eskatu zidanean. Esan zuen greziar adiskide bat ikustera etorri zela negozioen kontuengatik, eta, bere hizkuntzan bakarrik hitz egiten zuenez, interprete baten zerbitzuak ezinbestekoak zirela. Bere etxea Kensington-en zegoela aditzera eman zidan, eta presaka zebilela zirudien, kotxera azkar sartu baininduen kalera jaitsi ginenean.

» Kotxera diot, baina laster hasi nintzen zalantzan, ez ote zen zalgurdi bat. Lau gurgpileko kotxe tipikoak baino zabalagoa zen, dudarik gabe, Londreserako latsaizuna zirenak, eta osagarriak, higatuak izan arren, kalitate handikoak ziren. Latimer jauna nire aurrean eseri eta Charing Cross-en barrena abiatu eta Shaftesbury hiribidetik igo ginen. Oxford Streetera iritsi ginen, eta Kensingtonerako zeharkako bidea zela esatera ausartu nintzen, nire kidearen ez-ohiko jokabideak nire hitzak geldiarazi zituenean.

» Bere poltsikotik borra ikaragarri bat ateratzen hasi zen, berunez kargatua, eta behin baino gehiagotan atzera eta aurrera mugitu zuen, bere pisua eta indarra frogatzeko bezala. Gero, hitzik esan gabe ondoko eserlekuan jarri zuen. Hori egin ondoren, bi aldeetako leihatilak igo zituen, eta, nire harriadurarako, paperez estalita zeudela konturatu nintzen, haien artetik ezin ikusteko moduan.

» ‘Sentitzen dut bista etetea, Melas jauna’, esan zuen. ‘Kontua da ez dudala inolako asmorik zein lekutan gauden ikus dezazun. Niretzat eragozpena izango litzateke berriro bidea aurkitu ahal izango bazenu.’

» Pentsa dezakezunez, erabat txundituta geratu nintzen hitzaldi horrekin. Nire kidea bizkar zabaleko gazte sendoa zen, eta, arma kontuan hartu gabe ere, ez nuen inolako aukerarik izango berarekin borrokan hasteko.

» ‘Oso jokabide harrigarria da, Latimer jauna.’ esan nion totelka ‘Jakin behar duzu egiten ari zarena legez kanpoko dela.’

» ‘Askatasun moduko bat da, zalantzarik gabe’ esan zuen, ‘baina konpentsatuko dizugu. Hala ere, Melas jauna, ohartarazi behar dizut, gaur gaueko edozein unetan alarma-ahotsa ematen edo nire interesen kontra doan zerbait egiten saiatzen bazara, oso arazo larriak izango dituzula. Gogora ezazu inork ez dakiela non zauden, eta, zalgurdi honetan nahiz nire etxean egonda ere, nire esku zaudela.’

» Haren hitzak lasaiak ziren, baina oso mehatxagarria zen esateko modu latza zuen. Isilik eseri nintzen, neure buruari galdetuz ea zer arrazoi izan zezakeen ni bahitzeko hain ohiz kanpoko era horretan. Nolanahi ere, argi zegoen ez zuela zentzurik aurre egiteak, eta zer gerta zitekeen ikusi arte itxaron besterik ezin nuela egin.

» Ia bi orduz gidatu genuen, nora gindoazen ideiarik izan gabe. Batzuetan, harrien traketsak galtzada zolatu bat adierazten zuen, eta beste batzuetan, gure ibilbide leun eta isilik asfaltoa iradokitzen zuen, baina soinuaren aldaketa hori izan ezik, ez zegoen ezer gu non geunden asmatzen lagunduko zidakeenik. Leiho bakoitzeko papera sargaitza zen argitan, eta gortina urdin batek estaltzen zuen aurreko beiratea. Zazpiak eta laurdenak ziren Pall Malletik irten ginenean, eta nire erlojuak adierazi zidan hamar minutu falta zirela bederatzietarako, azkenean gelditu ginenean. Nire kideak leihatila jaitsi eta ate baxu eta arkudun bat ikusi nuen, haren gainean lanpara bat piztuta. Zalgurditik jaitsi nindutenean, atea ireki egin zen, eta etxe barruan aurkitu nintzen, belarra eta zuhaitzekin nire alde banatan. Hala ere, ez nekien lur pribatuak ziren ala Fede oneko herrialde bat esan nezakeena baino gehiago zen.

» Barruan koloretako gasezko lanpara bat zegoen, hain baxua, non ia ez bainuen ikusten, atalondoa tamaina jakin batekoa zela eta koadroz beteta zegoela izan ezik. Ilunpetan ikusi nuen atea ireki zuen pertsona gizon txiki bat zela, itxura zitalekoa, adin ertainekoa eta sorbalda biribilduekin. Guregana jiratu zenean, argiaren distirak betaurrekoak zeramatzala erakutsi zidan.

» ‘Hau al da Melas jauna, Harold?’ galdetu zuen.

» ‘Bai.’

» ‘Ongi egina, ongi egina! Espero dut borondate txarrik ez izatea, Melas jauna, baina ezingo genuke aurrera egin zu gabe. Gurekin ondo portatzen bazara, ez zara damutuko, baina trikimailuren bat egiten saiatzen bazara, Jainkoak lagun diezazula!’ Urduri eta espasmodikoki hitz egiten zuen, eta tartean barre txikiak eginez, baina nolabait bestek baino beldur handiagoa ematen zidan.

» ‘Zer nahi duzue nitaz?’ galdetu nuen.

» ‘Bisitan ari zaigun gizon zintzo greziar bati galdera batzuk egitea eta berak erantzunak ematea besterik ez. Baina ez esan behar duzuna baino gehiago, edo...’ hemen etorri zen berriro barre urduria, ‘hobe zenuke inoiz jaio ez izana.’

» Hitz egiten ari zela, ate bat ireki eta gela baterako bidea seinalatu zidan, luxuzko altzariz hornitua zirudiena, baina berriro ere argi bakarra lanpara erdi itxi batetik zetorren. Gela handia zen, noski, eta nire oinak alfonbran nola hondoratzen ziren hura zapaltzean, haren aberastasuna ikusi nuen. Belusezko aulkiak ikusi nituen, marmol zurizko erlaitz altu bat eta alde batean armadura japoniarra zirudiena. Gazteak utzi egin gintuen, baina bat-batean beste ate batetik itzuli zen, mantal antzeko batekin jantzitako gizon batez lagunduta, guregana astiro mugitzen ari zena. Argi ahuleko zirkuluan sartu zenean, argiago ikusteko aukera eman zidana, bere itxurak izutu egin ninduen. Oso zurbila zen, eta ikaragarri zargaldua, bere indarrak baino handiagoa zuen gizon baten begi irten eta distiratsuekin. Baina ahulezia fisikoaren zeinuak baino gehiago harritu ninduen zera izan zen: haren aurpegia groteskoki esparatrapuz jota zegoela, eta kuxin handi bat zuela ahoan itsatsita.

» ‘Ba al duzu arbela, Harold?’ oihukatu zuen agureak, izaki arraro hura aulki batean eseri beharrean erortzen zen bitartean ‘Eskuak askatuta al ditu? Orain, orduan, emaziozu arkatza. Zuk galderak egin behar dituzu, Melas jauna, eta berak idatziko ditu erantzunak. Galdetu lehenik eta behin, ea prest dagoen paperak sinatzeko.’

» Gizonaren begiek sua botatzen zutela zirudien.

» ‘Inoiz ez!’ idatzi zuen grekoz arbelean.

» ‘Inola ere ez?’ galdetu nuen, gure tiranoak hala aginduta.

» ‘Ezagutzen dudan apaiz greziar batek nire aurrean ezkondata ikusten badut bakarrik.’

» Gizonak barre egin zuen maltzurki.

» ‘Ba al dakizu zer duzun zain, orduan?’

» ‘Ez zait batere axola niri zer gerta dakidakeen.’

» Horiek dira gure elkarriketa arraroa osatzen zuten galdera eta erantzunen adibideak. Behin eta berriz galdetu behar izan nion ea amore emango ote zuen eta dokumentuak sinatuko ote zituen. Behin eta berriz jaso nuen erantzun sumindu bera. Baina laster bururatu zitzaidan ideia zoriontsu bat. Galdera bakoitzari neure esaldi laburrak gehitzen hasi nintzen, inozenteak hasieran, ea gure lagunetakoren batek ezer ba ote zekien probatzeko, eta gero, horren zantzurik ez zutela ikusi nuenez, arriskatu egin nintzen. Gure solasa, gutxi gorabehera, honelakoa izan zen:

» ‘Ezin duzu ezer onik atera setakeria honekin. Nor zara zu?’

» 'Ez zait axola. Londresen ezezaguna naiz.'

» 'Zure patua zure gain geratuko da. Zenbat denbora daramazu hemen?'

» 'Hala izan dadila. Hiru aste.'

» 'Jabetza ez da inoiz zurea izango. Zer duzu?'

» 'Ez da bilauentzat izango. Gosez hiltzen naute.'

» 'Libre geratuko zara sinatzen baduzu. Zer etxe da hau?'

» 'Inoiz ez dut sinatuko. Ez dakit.'

» 'Ez diozu inolako mesederik egiten berari. Zein da zure izena?'

» 'Utzidazu entzuten berari esaten. Kratides.'

» 'Ikusiko duzu sinatzen baduzu. Nongoa zara?'

» 'Orduan ez dut inoiz ikusiko. Atenas.'

» Bost minutu gehiago, Holmes jauna, eta istorio osoa atera ahal izango nien bere sudurren aurrean. Nire hurrengo galderak argitu ahal izango zuen kontua, baina une horretan atea ireki eta emakume bat sartu zen gelan. Ezin izan nuen andrea behar bezain argi ikusi, soilik dotorea eta altua zela jakiteko, ile beltza eta soineko zuri zabal batez jantzia.

» 'Harold' esan zuen ingelesez hitz eginez, atzerriko doinu markatu batean 'Ezin nintzen luzaroago egon. Hain bakarrik sentitzen naiz han goian, soilik...—Ai, ene Jainkoa, Paul da!'

» Azken hitz horiek grekoz izan ziren, eta une berean gizonak, ahalegin dardarti batez, esparatrapua ezpainetatik kendu eta oihu egin zuen: 'Sophy! Sophy!', emakumearen gainera erortzen zen bitartean. Haien besarkadak, hala ere, une bat besterik ez zuen iraun, gizon gazteenak emakumea hartu eta gelatik kanpora bultzatu baitzuen; zaharrenak, berriz, erraz menderatu zuen bere biktima zargaldua, eta beste atetik arrastaka eraman zuen. Une batez bakarrik geratu nintzen gelan, eta jauzi batez zutitu nintzen, ideia lauso batekin, nolabait etxe hura zer zen jakin nezakeela pentsatuz.

Zorionez, ez nuen pausorik eman, zeren, begiak altxatzean, gizon zaharra atean zutik zegoela ikusi bainuen, begiak nigan finkaturik.

» ‘Horrekin nahikoa da, Melas jauna’ esan zuen. ‘Konturatzen zara oso kontu pribatua utzi dizugula zure esku. Ez genion enbarazurik egin behar, baina grekoz hitz egiten duen eta negoziazioak hasi zituen gure lagunak Ekialdera itzuli behar izan du. Oso beharrezkoa zen haren lekua hartuko zuen norbait aurkitzea, eta zortea izan genuen zure botereez hitz egiten entzuteko.’

» Burua makurtu nuen.

» ‘Hemen dituzu bost subirano’ esan zuen, nigana hurbilduz, ‘eta hori, espero dut, tarifa nahikoa izango da. Baina gogoan izan’ erantsi zuen, bularrean kolpe txiki bat emanez eta barre egiten, ‘giza arima batekin honetaz hitz egiten baduzu—giza arima bakarra, gogoan izan—Jainkoa erruki dadila zure arimaz!’

» Ezin dizut esan nolako nazka eta bledurra eman zizkidan itxura hutsaleko gizon horrek. Orain hobeto ikusten nuen, lanpararen argiak haren gainean distiratzen zuenean. Bere aurpegiera gaixotia eta oliba-kolorekoa zen, eta bizar txiki zorrotza urria eta gaizki zaindua. Aurpegia aurrera bultzatu zuen hizketan ari zen bitartean, eta ezpainak eta betazalak etengabe mugitzen zitzaizkion, San Vitoren dantzaldiak joa balego bezala. Ezin izan nuen ekidin pentsatzea haren barre txiki eta bitxia nerbio-gaixotasunen baten sintoma ere bazela. Hala ere, haren aurpegiko izua begietan zegoen, altzairua bezain grisak, zeinak hoztasunez distiratzen zuten, bere sakontasunetan krudelkeria gaizto eta errukigabe batez.

» ‘Jakingo dugu honetaz hitz egiten baduzu’ esan zuen. ‘Gure hedabideak ditugu. Orain zalgurdia aurkituko duzu zure zain, eta nire lagunak zure bidean lagunduko dizu.’

» Ataritik ibilgailuraino eraman ninduten presaka, eta berriro zuhaitzak eta lorategi bat ikusi nituen. Latimer jauna atzetik joan zitzaidan, eta nire aurrean eseri zen, hitzik esan gabe. Isilik, leihoak altxatuta, distantzia amaigabe bat egin genuen berriro, harik eta azkenean, gauerdia jo eta berehala, zalgurdia gelditu zen arte.

» ‘Hemen jaitsiko zara, Melas jauna’ esan zuen nire kideak. ‘Sentitzen dut zure etxetik hain urrun uztea, baina ez dago beste aukerarik. Zure aldetik zalgurdiari jarraitzeko edozein saiakerak kalte baino ez dizu egingo.’

» Atea ireki zuen hizketan ari zela, eta ia ez nuen jauzi batez ireteteko astirik izan, gurdizainak zaldia astindu eta zalgurdia alde egin zuen, traketeatuz. Harrituta begiratu nion ingurura. Lugorri-eremu moduko batean nengoen, zuhaixka-mulu ilunez estalia.

Urrunean etxe-ilara bat zegoen, goiko leihoetan han-hemenka argiren bat zeukana. Beste aldean, trenbide bateko argi gorriak ikusi nituen.

» Ekarri ninduen zalgurdia bistatik galdua zen. Ingurura begira geratu nintzen, nire buruari non arraio ote nengoen galdetuz, ilunpetan niregana zetorren norbait ikusi nuenean. Nigana hurbildu zenean, treneko maletazaina zela konturatu nintzen.

» ‘Esan ahal didazu zein leku den hau?’ galdetu nion.

» ‘Wandsworth Common’ esan zuen.

» ‘Tren bat har dezaket hiriraino?’

» ‘Clapham Junceraino milia bat edo ibiltzen baduzu’, esan zuen, ‘garaiz iritsiko zara Viktoriara doan azken trenerako.’

» Hortaz, hori izan zen nire abenturaren amaiera, Holmes jauna. Ez dakit non nengoen, ez norekin hitz egin nuen, ezta esan dizudana besterik. Baina badakit joko zikin bat dagoela, eta gizon dohakabe horri lagundu nahi diot, ahal badut. Hurrengo goizean, istorio osoa kontatu nion Mycroft Holmes jaunari, eta gero poliziari.

Denok isilik eseri ginen aparteko kontakizun hura entzun eta gero. Orduan Sherlockek anaiari begiratu zion.

— Pausoren bat? — galdetu zuen.

Mycroftek Daily News jaso zuen, alboko mahaian etzanda zegoena.

Atenasko Paul Kratides izeneko gizon greziar baten berri ematen duen edonor saritua izango da. Antzeko saria ordainduko zaio Sophy izeneko dama greziar bati buruzko informazioa ematen duen edonori. X 2473.

— Hori egunkari guztietan zegoen. Ez zen erantzunik izan.

— Eta Kotsuletxe Greziarra?

— Galdetu dut. Beraiek ez dakite ezer.

— Atenaseko poliziaburuari telegrama bat, orduan?

— Sherlockek familiaren energia guztia du — esan zuen Mycroftek, nigana jiratuz —. Beno, hartu auzia bide guztietatik, eta abisatu zerbait lortzen baduzu.

— Jakina — erantzun zuen nire lagunak, aulkitik altxatuz — jakinaraziko dizut, baita Melas jaunari ere. Bitartean, Melas jauna, ni erne egongo nintzateke zu banintz, zeren, jakina, iragarki horien bidez jakin behar baitute traizionatu egin dituzula.

Elkarrekin etxera gindoazela, Holmes telegrafo-bulego batean gelditu eta telegrama batzuk bidali zituen.

— Begira, Watson — esan zuen —, gure gaua ez da alferrik izan. Nire kasurik interesgarrienetako batzuk Mycroften bidez iritsi zaizkit horrela. Entzun berri dugun arazoak, azalpen bakarra onartzen badu ere, ezaugarri bereizgarri batzuk ditu oraindik.

— Konpontzeko itzaropena duzu?

— Bada, dakigun guztia jakinda, benetan bitxia izango litzateke gainerakoaz ohartzen ez bagara. Zuk zeuk sortu behar izan duzu teoriaren bat entzun ditugun egitateak azaltzeko.

— Modu lausoan, bai.

— Zein da zure ideia, orduan?

— Begi bistakoa iruditzen zitzaidan neska greziar hura Harold Latimer izeneko gazte ingelesak bahitu zuela.

— Nondik?

— Atenasetik, agian.

Sherlock Holmesek ezetz esan zuen buruarekin.

— Gizon gazte horrek ezin zuen grekoz hitz egin. Andreak nahiko ondo hitz egiten zuen ingelesez. Ondorio gisa—Ingalaterran egona zen denbora batez, baina gizona ez zen Grezian egon.

— Beno, orduan suposatuko dugu Ingalaterrara etorri zela bisitan, eta Harold horrek konbentzitu egin zuela berarekin alde egiteko.

— Hori probableagoa da.

— Orduan anaia—harremana hori izango dela uste baitut—Greziatik dator tartean sartzeko. Zuhurtziarik gabe, gaztearen eta bere zaharragoa den bazkidearen esku jartzen

da. Atxilotu egiten dute, eta haren aurkako indarkeria erabiltzen dute paper batzuk sinatzeko. Paper horiek neskatoaren ondasuna lagatzen diete—gizona horren fiduziariora izan daitekelarik—. Berak uko egiten dio. Harekin negoziatzeko, interprete bat lortu behar dute, eta Melas jaunarengana jotzen dute, lehenago beste bat erabili ondoren. Neskari ez zaio anaiaren etorreraren berri ematen, eta kasualitate hutsez konturatzen da.

— Bikain, Watson! — oihu egin zuen Holmesek — Egiatik urrun ez zaudela uste dut. Ikusten duzu karta guztiak ditugula, eta bat-bateko ekintza bortitzen baten beldur baino ezin gara izan. Denbora ematen badigute, harrapatu egin behar ditugu.

— Baina nola jakin dezakegu etxea non dagoen?

— Beno, gure aierua zuzena bada eta neskaren izena Sophy Kratides bada edo izan bazen, ez genuke aurkitzeko zailtasunik izan beharko. Hori izan behar du gure itxaropen nagusia, kontuan hartuta anaia erabat ezezaguna dela, noski. Argi dago denboraldi bat igaro dela Harold horrek neskarekin harreman horiek ezarri zituenetik—aste batzuk behintzat—, Grezian anaiak denbora izan baitzuen horren berri izateko eta etortzeko. Denbora horretan leku berean bizi izan badira, litekeena da Mycroften iragarkiaren erantzunen bat izatea.

Baker Streeteko gure etxera iritsi ginen hizketan ari ginela. Holmes izan zen eskailera igotzen lehena, eta, gure gelako atea ireki zuenean, harriduragatik ikara bat eman zuen. Haren sorbalda gainetik begiratu, eta ni ere aho zabalik geratu nintzen. Bere anaia Mycroft besaulkian eserita zegoen.

— Sar zaitez, Sherlock! Sartu, jauna, — esan zuen emeki, gure harridurazko aurpegiei irribarre eginez —. Ez duzu hainbeste energia espero nigandik, ezta, Sherlock? Baina, nolabait, kasu honek erakartzen nau.

— Nola iritsi zara hona?

— Kabriolet batean aurreratu zaituztet.

— Berririk izan al da?

— Nire iragarkiak erantzun bat jaso du.

— Ah!

— Bai, zuek joan eta minutu gutxira iritsi da.

— Eta zer dio?

Mycroft Holmesek paperezko orri bat atera zuen.

— Hona hemen, — esan zuen —, adin ertaineko eta gorpuzkera ahuelko gizon batek idatzia J lumaz eta krema paper errealean.

JAUNA [dio gizonak]:

Gaurko dataren zure iragarpenari erantzunez,
jakinarazten dizut oso ondo ezagutzen dudala
neska hori. Ni bisitatzeko begirunerik baduzu,
bere istorio mingarriari buruzko xehetasun
batzuk emango dizkizut. Gaur egun Myrtles-en
bizi da, Beckenham-en.

— Adeitasunez,

J. DAVENPORT.

— Brixton-etik idazten du — esan zuen Mycroft Holmesek — Ez duzu uste harengana joan gintezkeela orain, Sherlock, eta xehetasun horien berri izan?

— Ene Mycroft maitea, anaiaren bizitza arrebaren istorioa baino baliotsuagoa da. Uste dut Gregson inspektoreari deitu beharko geniokeela Scotland Yarden eta zuzenean Beckenhamera joan. Badakigu gizon bat heriotzara eramaten ari direla, eta ordu bakoitza hil ala bizikoa izan daiteke.

— Hobe izango dugu Melas jaunaren bila joatea — iradoki nuen —. Baliteke interprete bat behar izatea.

— Bikain — esan zuen Sherlock Holmesek — Mutikoa lau gurpileko ibilgailu baten bila joan daitela, eta berehala joango gara. — Mahaiko kaxoia ireki zuen hizketan ari zen bitartean, eta errebolberra poltsikoan sartu zuela konturatu nintzen. — Bai — esan zuen, nire begiradari erantzunez — . Entzun dugunaren arabera, esango nuke talde bereziki arriskutsu bati aurre egin behar diogula.

Ia iluntzear zegoen Pall Mallera iritsi ginenean, Melas jaunaren geletara. Gizon batek deitu berri zion, eta jada ez zegoen.

— Esan ahal didazu non? — galdetu zuen Mycroftek.

— Ez dakit, jauna — erantzun zuen atea ireki zuen emakumeak —. Gizonarekin zalgurdi batean joan zela besterik ez dakit.

— Izen bat eman al zuen gizonak?

— Ez, jauna.

— Ez zen gazte altu, dotore eta beltzarana?

— O, ez, jauna. Gizon txikia zen, betaurrekoduna, aurpegi argalekoa, baina oso atsegina bere portaeretan, barre egiten baitzuen hitz egiten zuen denbora guztian.

— Goazen! — oihu egin zuen Sherlock Holmesek zakarki.

— Hau seriotzen ari da — ohartarazi zuen, Scotland Yardera gindoazela. Gizon hauek Melas harrapatu dute berriro. Balio fisikorik gabeko gizona da, pasadan gaueko esperientziagatik ongi dakizuen bezala. Bilau horrek izutu egin zuen ikusi zuenean. Zalantzarik gabe, beren zerbitzu profesionalak nahi dituzte, baina, erabili izan balute, agian zigortu egingo lukete bere traizioagatik.

Gure itxaropena zen, trena hartuta, Beckenhamera iritsiko ginela zalgurdiarekin batera edo zalgurdia baino lehenago. Scotland Yardera iristean, ordea, ordubete baino gehiago eman genuen Gregson Inspektorearen bila joan eta etxean sartu ahal izateko legezko formalitateak betetzeko. Hamarrak laurden gutxi ziren Londreseko zubira iritsi ginenean, eta hamarrak eta erdiak laurok Beckenhameko nasan jaitsi ginenean. Milia erdiko bidaia batek The Myrtlesera eraman gintuen—etxe handi eta ilun batera, errepidetik urrun zegoena, bere berezko lurraldean. Hemen gure zalgurdia utzi eta elkarrekin abiatu ginen.

— Leiho guztiak ilun daude — ohartu zuen inspektoreak. — Etxea hutsik dagoela dirudi.

— Gure txoriek hegan egin dute eta eta habia hutsik dago — esan zuen Holmesek.

— Zergatik diozu?

— Ekipaiaz betetako gurdi bat hemendik igaro da duela ordubete.

Inspektoreak barre egin zuen.

— Gurrpilen arrastoak ikusi ditut ateko lanpararen argitan, baina zertara dator ekipaiarena?

— Agian gurpil arrasto berdina ikusi dituzu kontrako noranzkoan. Baina joanekoak askoz sakonagoak ziren, eta ziur esan dezakegu pisu handia zegoela zalgurdian.

— Hor pixka bat gairditzin nauzu — esan zuen inspektoreak sorbaldak goratuz —. Ez da erraza izango atea bortxatzea, baina hori egiten saiatuko gara inork entzuten ez badigu.

Aldaba indarrez jo eta txilinari tira egin zion, baina erantzunik lortu gabe. Holmesek isilean alde egin zuen, baina minutu gutxiren barruan itzuli zen.

— Leiho bat zabalik daukat — esan zuen.

— Zorte handia da zu legearen alde egotea, eta ez kontra, Holmes jauna — esan zuen inspektoreak, ikusita nire lagunak nolako modu zuhurrean zabaldu zuen kisketa. — Beno, egoera ikusita, uste dut gonbidapenik gabe sar gaitezkeela.

Bata bestearen atzetik apartamentu handi batera joan ginen, Melas jauna egon zen berbera. Inspektoreak bere linterna piztu zuen, eta haren argitan bia atea ikusi ahal izan genituen, gortina, lanpara eta japoniar sare-begizko kota, berak deskribatu bezala. Mahai gainean bi edalontzi zeuden, brandy botila huts bat, eta otordu baten hondarrak.

— Zer da hori? — galdetu zuen Holmesek, bat-batean.

Denok geldi geratu ginen, entzuten. Intziri txiki bat zetorren nonbaitetik gure buruen gainetik. Holmes aterantz joan eta atalondora irtin zen. Zarata goibela goiko solairutik zetorren. Lasterka igo zen, inspektoreak eta biok orzpoz orpo jarraitzen geniola, bere anaia Mycroftek bere gorpuzkerak uzten zion bezain azkar jarraitzen zion bitartean.

Hiru atek bigarren solairura ematen zuten, eta erdiko atetik soinu maltzurak zetozen, batzuetan murmurio sor batean murgiltzen zirenak eta intziri zaratatsu batean berriro altxatzen zirenak. Itxita zegoen, baina giltza kanpoan utzia zen. Holmesek atea kolpe batean ireki eta korrika sartu zen, baina berehala irtin zen, eskua eztarrian zuela.

— Ikatza da — oihukatu zuen —. Emaiozue denbora. Haizatuko da.

Barrura begiratzean, gelako argi bakarra sugar urdin mehe batetik zetorrela ikusi genuen, erdian zegoen letoizko tripode txiki batetik kliskatzen zuena. Naturaz kanpoko zirkulu zurbil bat proiektatzen zuen lurrean, eta itzaletan, harantzago, hormaren kontra makurtutako bi irudiren silueta lausoa ikusi genuen. Ate irekitik kirats pozoitsu bat zeriola,

arnasestuka eta eztulka hasi ginen. Holmes korrika joan zen eskaileretan gora aire freskoa arnasteko, eta gero, gelan korrika sartu ondoren, leihoa ireki eta letoizko tripodea lorategira bota zuen.

— Minutu batean sar gaitzke — arnasestuka jarri zen berriro —. Non dago kandela bat? Ez dut uste giro horretan pospolorik piztu dezakegunik. Eutsi argia atean eta aterako ditugu, Mycroft. Orain!

Presaka iritsi ginen pozoitutako gizonengana, eta atalondo argizaturaino eraman genituen. Biak konorterik gabe zeuden, ezpain moreekin, aurpegi handitu eta kongestionatuarekin, eta begi irtenekin. Izan ere, haren hazpegiak hain zeuden itxuragabetuak, non, bizar beltzagatik eta gorpuzkera sendoagatik izan ez balitz, agian ez genukeen ezagutuko ordu batzuk lehenago Diogenes Klubean utzi gintuen interprete greziarra. Eskuak eta oinak ondo lotuta zeuzkan, eta begi baten gainean kolpe bortitz baten markak. Bestea, antzera lotuta, gizon garaia zen, bere eromenaren azken etapan, eta hainbat esparatrapu-zerrenda zituen aurpegian groteskoki itsatsita. Etzan egin genuenean intzirika egiteari utzi zion, eta begirada batek adierazi zidan, harentzat behintzat, gure laguntza beranduegi iritsi zela. Melas jaunak, hala ere, bizirik jarraitzen zuen, eta ordubete baino gutxiagoan, amoniakoaren eta brandyaren laguntzaz, poztu egin nintzen bere begiak irekitzen ikusteaz eta nire eskuak bide guztiak dauden haran ilun horretatik erreskatatu zuela jakiteaz.

Kontatu behar zuen istorio xumea zen, eta geure dedukzioak baieztatu besterik ez zuen egiten. Istorio xumea zen kontatu behar zuena, eta gure ondorioak berretsitu genituen. Bisitariak, bere geletara sartzean, makila itxurako arma bat atera zuen mahukatik, eta hainbesteko beldurra eman zion berehalako heriotza saihestezinarekiko, ezen bigarren aldiz bahitu baitzuen. Izan ere, ia hipnotikoa zen barreen gaizkile hark hizkuntzalari dohakabearengan izan zuen eragina, ezin baitzuen berataz hitz egin esku dardaratiz eta masaila zurbilduaz ez bazen. Berehala eraman zuten Beckenhamera, eta interprete gisa aritu zen bigarren elkarriketa batean, lehenengoa baino are dramatikoagoa, non bi ingelesek berehalako heriotzarekin mehatxatu baitzuten presoa, bere eskakizunak betetzen ez bazituen. Azkenean, mehatxuek ezertarako balio ez zutela ulerturik, berriz ere presondegira bota zuten, eta Melasi bere traizioa aurpegiratu ondoren—egunkariko iragarkiagatik deskubritu zutena—, makila batez zorabiatu zuten, eta ez zen beste ezertaz gogoratu, harik eta haren gainera makurtuta aurkitu gintuen arte.

Eta hori izan zen interprete greziarraren kasu bitxia, zeinaren azalpena misterio bat baita oraindik. Iragarpenari erantzun zion gizonarekin hitz egin genuenean, jakin ahal izan genuen zorigabeko neska hura greziar familia aberats batetik zetorrela, eta Ingalaterran lagun batzuk bisitatzen ibilia zela. Han egon zen bitartean, Harold Latimer

izeneko gazte bat ezagutu zuen, horrek nolabaiteko eragina hartu zuen harengan, eta azkenik berarekin ihes egiteko konbentzitu zuen. Bere lagunak, gertaeraz hunkiturik, Atenasen anaiari jakinaraztearekin konformatu ziren, eta, gero, erantzunkizuna saihestu zuten. Anaia, Ingalaterrara iritsi zenean, Latimer eta bere bazkidea Wilson Kemp-en eskuetan jarri zen zuhurgabeki—azken hori aurrekari ikaragarrienak zituela—. Bi horiek konturatu ziren haren hizkuntzarekiko ezjakintasunagatik beren eskuetan babesik ez zutela, eta horregatik preso eduki zuten, eta krudelkeria eta gosearen bidez saiatu ziren beraren eta bere arrebaren ondasunen lagapena sinarazten. Etxean eduki zuten neskak jakin gabe, eta aurpegiko esparatrapuak haren antzematea zailtzea zuen helburu, emakumeak inoiz ikusiz gero. Hala ere, bere pertzepzio femeninoak berehala ohartu zen moztarroaz, interpretearen bisita zela-eta lehen aldiz ikusi zuenean. Konturatzean neskak haien sekretuaz ohartu zela eta preso ezin ezin izango zutela hertsatu, bi bilauek, emakumearekin batera, aurretik, edo hori uste izan zuten, desafiatu eta traizionatu zituzten gizonak mendekatu ondoren.

Hilabete batzuk geroago, Budapesteko egunkari zati bitxi bat iritsi zitzaigun. Emakume batekin zihoazen bi ingelesek amaiera tragikoa izan zutela kontatzen zuen. Antza denez, biak sastakatuak izan ziren, eta Hungariako poliziaren iritziz, borrokan aritu eta zauri hilgarriak egin zizkioten elkarri. Holmesek, hala ere, beste era batera pentsatzen duela uste dut, eta gaur egun arte diot, neska greziarra aurkitzerik balego, jakingo litzatekeela nola mendekatu zituen berak eta bere anaiak jasandako bidegabekeria.